



Lezoko Unibertsitateko Udala



aztiker
SOZIOLOGIA IKERGUNEA

LEZOARREN LEGEGINTZALDI HASIERAKO BALORAZIOA. HERRITARREN IRITZIAK ETA JARRERAK, 2023

IKERKETA KUANTITATIBOA

AZTIKER IKERGUNEA
www.aztiker.eus

AURKIBIDEA

1.	SARRERA	2
2.	METODOLOGIA OHARRAK	3
3.	EMAITZAK	4
3.1.	ALDAGAI SOZIODEMOGRAFIKOAK	4
3.2.	LEZOREKIKO ASEBETETZEA ETA HERRITARREN ARAZO NAGUSIAK	8
3.2.1.	LEZOREKIKO ASEBETETZE MAILA, BIZITZEKO UDALERRI MODUAN	9
3.2.2.	LEZOKO ARAZO NAGUSIA ZEIN DEN	10
3.2.3.	PERTSONALKI KEZKA NAGUSIA ZEIN DEN	11
3.3.	PARTE HARTZE POLITIKOA ETA SOZIALA	12
3.3.1.	LEZOKO HERRIKO BIZITZAN DUEN PARTE HARTZE SOZIALA	14
3.3.2.	POLITIKAREKIKO INTERESA ETA MAIATZEKO UDAL HAUTESKUNDEETAKO JARRERA.....	16
3.4.	UDAL GOBERNUA ETA BERE KUDEAKETAREN BALORAZIOA	18
3.4.1.	UDAL GOBERNUAREN ETA OPOSIZIOAREN INGURUKO IRITZIA	20
3.4.2.	UDAL GOBERNUA HAINBAT GAIETAN NOLAKO KUDEAKETA EGITEN ARI DEN	21
3.4.3.	UDAL GOBERNUAREN EZAUGARRI BATZUEN BALORAZIOA	22
3.4.4.	UDAL GOBERNU BERRIAK AURREKOAREKIN ALDERATUTA NOLA LAN EGINGO DUEN	23
3.5.	UDAL GOBERNUAREN HELBURU ETA PROIEKTUEN INGURUKO IRITZIA	24
3.5.1.	UDAL GOBERNUAK DITUEN HAINBAT HELBURUREKIN ADOSTASUN MAILA ETA LEHENTASUNAK	26
3.5.2.	UDALAK MARKATUTAKOEZ APARTE, BESTELAKO HELBURUAK ETA LEHENTASUNEZKO PROIEKTUAK	28
3.6.	LEZOKO UDALAREN INFORMAZIOA ETA HERRITARREN ARRETA ZERBITZUA.....	30
3.7.	AMAIERAKO OHARRAK.....	34

1. SARRERA

Jarraian datorrena Lezoko Udalaren enkarguz egindako ikerketaren emaitza da, udalerriko herritarren iritzia entzun eta jasotzeko helburuarekin egindakoa. Ikerketa hau 2023ko azaroaren 13 eta 23 bitartean egindako inkesta baten bidez garatu da. Galdetegia Lezoko Udaleko ordezkariekin adostua izan da.

Aurkezten den txostenak honako egiturari jarraitzen dio:

- Hasteko, ikerketa egiteko erabili den metodologia azaltzen da.
- Ondoren, inkestaren edukietan edota ikerketaren emaitzetan sartzen da:
 - o Inkestatutako herritarren **aldagai soziodemografikoak** aurkezten dira.
 - o **Egoera orokorraren inguruan** egiten duten balorazioa jasotzen da: udalerririkiko dagoen asebetetze maila, Lezon identifikatzen diren arazo nagusiak eta norbere arazo nagusiak.
 - o Segidan, **Lezoko herritarrek duten parte hartze politiko eta sozialaren** inguruko galderen emaitzak jasotzen dira: udalerriko elkarte eta eragileetan parte hartzea, politikarekiko interesa edota pasa den maiatzeko udal hauteskundeetako parte hartzea.
 - o **Udal gobernuaren inguruko hainbat aldagai** aztertzen dira ondoren: Udal gobernuaren eta oposizioaren inguruko iritzia, gai batzuen inguruan Udal gobernuaren kudeaketa nolako izaten ari den, edo Udal gobernuaren ezaugarri batzuen inguruko balorazioa.
 - o Bosgarren lekuan, **Gobernu Planaren baitan**, Lezoko Udalak mahai gainean dituen **zenbait proiektuekiko** herritarrek duten **adostasun maila eta lehentasuna** aztertzen da.
 - o Amaitzeko, **Lezoko Udalak ematen duen informazioa eta Herritarren Arreta Zerbitzuaren gaineko ezagutza eta balorazioa** nolakoa den aztertu da.

2. METODOLOGIA OHARRAK

ERABILITAKO TEKNIKA: Lezoko herritarrei egindako inkesta egituratua.

UNIBERTSOA: Lezon bizi diren 18 urtetik gorako herritarrak. Garai honetan, zehazki, adin horretako **5.028** lagun zeuden erroldatuta (INE, 2022).

LAGINA: **360** herritar.

LAGINKETA: Lagina unibertsoaren argazki ahalik eta fidelena izan zedin, adina eta sexuaren arabera kuotak erabili dira.

GALDERA-SORTAK: Aztertu nahi ziren gaien inguruko galderekin osatu da galdera-sorta, Udaleko ordezkariekin elkarlanean. Elkarriketa batzuk euskaraz (%42) eta beste batzuk gaztelaniaz (%58) egin direnez, bi galdera-sorta izan ditugu, hizkuntza bakoitzean bana.

LANDA-LANA: Inkestak 2023ko azaroaren 13 eta 23 bitartean egin dira. Oro har, herritarren erantzuna oso ona izan da.

AKATS TARTEA: $\pm 5,0\%$ lagin osoarentzat, **95eko konfiantza mailan** eta $p=q=50,0\%$ denerako.

Inkesta egiteko erabili den metodologia multikanala izan da. Gizartea osatzen duten profil desberdineko talde bakoitzak ezaugarri jakin batzuk ditu eta, horren arabera, berengana iristeko metodologia egokienak ere aldatu egiten dira.

Hala, ikerketa honetako inkesta bi tekniken bidez egin da:

- **Inkesta telefonikoak** egin dira, bereziki 45 urtetik gorako herritarrei begira.
- **Online inkestak** ere egin dira 45 urtetik beherako herritarrei begira batez ere.

Guztira, 360 inkesta egin dira adierazitako daten artean. Ondoren, inkesta horiek sexua eta adinaren arabera haztatu dira.

DATU TEKNIKOAK (LABURPENA):

Unibertsoa: 18 urtetik gorako Lezoko herritarrak (**5.028**)

Lagina: **360** herritar.

Landa-lana: 2023ko azaroaren 13 eta 23 bitartean. Inkestak euskaraz zein gaztelaniaz egin dira, inkestatuaren nahiaren arabera.

Akats tartea: $\pm 5,0\%$ lagin osoarentzat, 95eko konfiantza mailan eta $p=q=50,0\%$ denerako.

3. EMAITZAK

3.1. ALDAGAI SOZIODEMOGRAFIKOAK

Inkestaturen artean, emakumezkoek pisu zertxobait handiagoa dute gizonek baino (%50,8 eta %48,9 hurrenez hurren). Horrez gain, beren burua ez binario bezala identifikatzen dutenak %0,3 dira. Adinari dagokionez, inkestaturen ia bi herenek 45 urte edo gehiago dituzte (%63,9) eta gainerako herena pasatxok 18 eta 44 urte artean (%36,1)¹.

Bizilekuari dagokionez, inkestatuek bizi diren kalea aipatu behar izan dute eta, ondoren, kale horiek zonaldeka antolatu dira. Guztira bost zonaldeetan banatu da Lezo eta hauxe izan da inkestaturen banaketa: Kaxkoan bizi da inkestaturen %36,1; Ijurko inguruan %27,6; Elias Salaberria, Lopene, Pisbe inguruetan %23,9; Altamiran %6,8 eta Gaintxurizketa eta inguruko auzoetan bizi da %5,6.

Lan egoerari dagokionez, galdetegia bete dutenen ia hamarretik sei (%57,3) lanean ari da, beste %4,8 langabezia egoeran dago, %4,2 ikasten ari da, %3,5ek etxeko lan ez-ordainduak egiten ditu eta, bukatzeko, %28,5 jubilatuta edo lanik egin ezinda dago (ezgaitasunen batengatik).

Inkestatuei galdetu zaie ea beraiek eta beren gurasoak non jaio diren. Datu horiek konbinatuta osatu da jatorriaren inguruko aldagaia. Gauzak honela, inkestaturen erdia ingururen kasuan (%53,1) bai inkestatua bera eta baita bere bi gurasoak Euskal Herrian jaiotakoak dira. Bestetik, inkestaturen %13,0k dio bera eta gurasoetako bat Euskal Herrian jaiotakoak direla, baina bigarren gurasoak kanpoan jaiotakoa dela. Ondoren, bi gurasoak kanpoan jaiotakoak datoz (%10,9) eta, azkenik, inkestatua bera eta bi gurasoak Euskal Herritik kanpo jaiotakoak (%18,1). Aipatzekoa da, era berean, herritarren %5,0ek ez dituela datu horiek eman nahi izan.


Euskara gaitasunari dagokionez, inkestaturen gehiengoak (%58,1) euskaraz ondo ulertu eta hitz egiten du. Beste %20,5ek ulertu bai baina ez du ondo hitz egiten, eta gainerako %21,4k euskaraz ez du ulertu ere egiten. Gaitasuna hori izanda, inkestaturen %42,0k euskaraz bete du galdetegia. Nahiz eta herritar gazteenek, 18-29 urte artekoek, euskara gaitasun altuena izan (%87,7) inkesta euskaraz bete dutenak %51,1 izan dira. 30-44 urte artekoek euskara gaitasun baxuagoa badute ere, ehuneko altuagoan bete dute euskaraz (%55,8). Beste muturrean, 65 urtetik gorako lezoarren %39,5ek dio euskara menperatzen duela eta ia dakiten guztiek galdetegia euskaraz bete dute (%32,6).

¹ Kontuan hartu behar da aldagai horiek haztatuak daudela; beraz, Lezoko errealitatearekin guztiz bat egiteko egokituak izan dira.

Inkestaturen generoa


	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Emakumezkoa	183	50,8
Gizonezkoa	176	48,9
Ez binarioa	1	0,3
Guztira	360	100,0

Iturria: Lezoko herritarren iritziak Udalaren eta bere proiektuen inguruan. Aztiker, 2023.

**Inkestaturen adin-tartea**


	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
18-29 urte artean	48	13,3
30-44 urte artean	82	22,8
45-64 urte artean	144	40,0
65 urtetik gora	86	23,9
Guztira	360	100,0

Iturria: Lezoko herritarren iritziak Udalaren eta bere proiektuen inguruan. Aztiker, 2023.

**Bizi den zonaldea**

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Kaxkoa	130	36,1
Ijurko	99	27,6
Elias Salaberria, Lopene, Pisbe...	86	23,9
Altamira	24	6,8
Gaintxurizketa, Herriondo bailara eta hurbileko baserriak	21	5,6
Guztira	360	100,0


Iturria: Lezoko herritarren iritziak Udalaren eta bere proiektuen inguruan. Aztiker, 2023.



Lan egoera


	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Lan ordaindua	202	57,3
Langabezian	17	4,8
Etxeko lanak (ez ordaindua)	13	3,5
Ikasten edo ikasten nagusiki	15	4,2
Jubilatua, pentsionista edo ezgaitasun batekin	101	28,5
Beste bat	6	1,6
Guztira	352	100,0

Iturria: Lezoko herritarren iritziak Udalaren eta bere proiektuen inguruan. Aztiker, 2023.

**Inkestatua eta gurasoen jaiolekua**


	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Inkestatua eta gurasoak Euskal Herrian jaioak	191	53,1
Inkestatua Euskal Herrian jaioa, gurasoetako bat kanpo	47	13,0
Inkestatua Euskal Herrian jaioa, bi gurasoak kanpo	39	10,9
Inkestatua eta gurasoak, hiruak Euskal Herrikan jaioak	65	18,1
ED/EE	18	5,0
Guztira	360	100,0

Iturria: Lezoko herritarren iritziak Udalaren eta bere proiektuen inguruan. Aztiker, 2023.

**Euskara gaitasuna**

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Ondo ulertu eta hitz egin	208	58,1
Ulertu bai, hitz egin nekez	73	20,5
Ez ulertu ez hitz egin	76	21,4
Guztira	357	100,0


Iturria: Lezoko herritarren iritziak Udalaren eta bere proiektuen inguruan. Aztiker, 2023.



Inkesta zein hizkuntzetan bete duten

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Euskaraz	151	42,0
Gaztelaniaz	209	58,0
Guztira	360	100,0

Iturria: Lezoko herritarren iritziak Udalaren eta bere proiektuen inguruan. Aztiker, 2023.



3.2. LEZOREKIKO ASEBETETZEA ETA HERRITARREN ARAZO NAGUSIAK

Oro har, Lezoko herriarekin duten asebetetze mailaz galdetuta, bizitzeko leku moduan, 7,5eko batez besteko asebetetzea adierazten dute lezoarrek (0tik 10erako eskalan). Batez besteko puntuazioa oso antzekoa da galdera hau sexuaren arabera eta adin-tarteen arabera gurutzatzen bada. Aldiz, bizilekuaren arabera aztertuta, Gaintxurizketa, Herriondo bailara eta hurbileko baserrietan bizi direnek eta Altamirakoek puntuazio baxuagoa ematen diote galdera honi (6,5 eta 7,1 hurrenez hurren).

Inkestatuei Lezoko arazo nagusia eta norberaren kezka nagusia zein diren galdetu zaie hurrena. Lezoko arazo nagusien artean, gehien errepikatu den arazoa 'aparkaleku falta' izan da, herritarren %38,7k aipatu baitu. Bereziki aipatua izan da gizonezkoen artean eta herritar gazteen artean. Eta zonaldeka aztertuz gero, Ijurko inguruan bizi direnek adierazi dute gehien. Ondoren, koska handi bat beherago, 'udalerraren garbitasuna eta kaleen garbitasuna'-ren inguruko aipamenak aurkitzen dira (%7,2) eta bereziki Altamiran bizi diren herritarren artean du indar handiena. Gai honekin lotuta, hirugarren arazo aipatuena 'periferiako auzoen egoera txarra edo mantenu falta' izan da %5,2rekin. Hirugarren arazo hau bereziki aipatua izan da, aurrekoa bezalaxe, Altamirako herritarren artean. Are gehiago, zonalde horretan arazo nagusien artean lehen postuan agertzen da. Saillkapenarekin jarraituta, laugarren postuan agertzen da 'portuko zarata, zikinkeria eta kontaminazioa', herritar guztien %4,3k aipatuta eta bereziki Kaxkoaren inguruan bizi direnen artean. Eta zerrendan hurrengo lekuetan datoz 'etxebizitza eskuratzeari lotutako arazoak', 'parke eta espazio berde gutxi, egoera txarrean' edota 'trafikoaren arazoa'.


Norberaren kezka nagusiak zein diren galdetutakoan, erantzunen banaketa aldatzen da. Lehen postuan 'aparkaleku faltak' jarraitzen du, baina ehuneko askoz apaltzen da (%12,3), hau da, udalerriko arazo nagusia dela aipatzen du herritar askok baina ondoren, ez da arazo pertsonal nagusia gehientzat. Bigarren postura salto egiten du 'etxebizitza eskuratzeko zailtasunak' (%6,9) eta, gainera, 30 urtez azpikoen arazo nagusi bezala kokatzen da. Adinean aurrera egin ahala, arazo horren aipamenak behera egiten du. Bereziki aipamen asko jaso ditu langabezian dauden herritarren artean eta ikasleen artean. Ondoren, hirugarren lekuan dago 'udalerraren garbitasuna eta kaleen garbitasuna' (%4,7) eta laugarren postuan agertzen da 'delinkuentzia eta segurtasun falta' (%3,9). Bukatzeko, bosgarren postuan topatu daiteke 'euskararen egoeraren' inguruko kezka (%3,0). Azken hau bereziki aipatua izan da emakumezkoen artean eta guraso diren edo izateko adinean dauden herritarren artean.

3.2.1. LEZOREKIKO ASEBETETZE MAILA, BIZITZEKO UDALERRI MODUAN

Zein neurritan zaude asebeteta zure herriarekin, bizitzeko leku moduan? 0tik 10erako eskalan: 0k esan nahi du ez zaudela batere asebeteta eta 10ek erabat asebeteta zaudela.

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Oso asebeteta (10-7)	281	78,8
Erdipurdi (6-4)	61	16,9
Gutxi asebeteta (3-0)	16	4,4
Guztira	357	100,0
Batezbestekoa (10-0)		7,5

Iturria: Lezoko herritarren iritziak Udalaren eta bere proiektuen inguruan. Aztiker, 2023.



3.2.2. LEZOKO ARAZO NAGUSIA ZEIN DEN

Zure ustez, zein da udalerriko arazorik garrantzitsuen?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Aparkaleku falta	139	38,7
Herriaren garbitasuna, kaleen garbitasuna	26	7,2
Periferiako auzoen egoera txarra edo mantenu falta	19	5,2
Portuko zarata, zikinkeria eta kontaminazioa	16	4,3
Etxebizitzari lotutako arazoak: aukera gutxi, garestiak...	11	3,1
Parke eta espazio berde gutxi, egoera txarrean	10	2,7
Trafikoa	9	2,6
Azpiegiturak eta garraioak	9	2,5
Hizkuntza egoerarekin lotutako arazoak, euskararen egoera	8	2,2
Oztopo arkitektonikoak mugikortasun arazoak dituztenentzat	7	1,9
Zerbitzu publikoen funtzionamendua eta hedadura, laguntzak	6	1,8
Komertzio txikiaren galera	6	1,6
Haurrentzako jolas parke eta gune estalien falta	6	1,6
Delinkuentzia, segurtasun falta	5	1,4
Ingurumena, krisi klimatikoa	3	0,8
Adineko pertsonen arazoak	2	0,6
Gazteekin lotutako gaiak	2	0,5
Immigrazioa eta horrekin lotutako arazoak, arrazakeria	2	0,5
Beste bat	28	7,8
ED / EE	47	13,1
Guztira	360	100,0

Iturria: Lezoko herritarren iritziak Udalaren eta bere proiektuen inguruan. Aztiker, 2023.




3.2.3. PERTSONALKI KEZKA NAGUSIA ZEIN DEN

Eta zein da zure arazo pertsonal garrantzitsuena edo kezka nagusia?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Aparkaleku falta	44	12,3
Etxebizitzari lotutako arazoak: aukera gutxi, garestiak...	25	6,9
Herriaren garbitasuna, kaleen garbitasuna	17	4,7
Delinkuentzia, segurtasun falta	14	3,9
Hizkuntza egoerarekin lotutako arazoak, euskararen egoera	11	3,0
Oztopo arkitektonikoak mugikortasun arazoak dituztenentzat	9	2,4
Periferiako auzoen egoera txarra edo mantenu falta	9	2,4
Azpiegiturak eta garraioak	8	2,3
Arazo ekonomikoak, krisia	8	2,1
Haurrentzako jolas parke eta gune estalien falta	7	2,1
Trafikoa	7	1,9
Portuko zarata, zikinkeria eta kontaminazioa	7	1,8
Adineko pertsonen arazoak	6	1,6
Komertzio txikiaren galdera	6	1,6
Lan merkatuari lotutako arazoak, langabezia	3	0,8
Haur eta gazteen hezkuntza	3	0,8
Gazteekin lotutako gaiak	2	0,5
Parke eta espazio berde gutxi, egoera txarrean	2	0,5
Immigrazioa eta horrekin lotutako arazoak, arrazakeria	2	0,5
Beste bat	51	14,3
ED / EE	120	33,4
Guztira	360	100,0

Iturria: Lezoko herritarren iritziak Udalaren eta bere proiektuen inguruan. Aztiker, 2023.



3.3. PARTE HARTZE POLITIKOA ETA SOZIALA

LEZOKO HERRIKO BIZITZAN HERRITARREN DUTEN PARTE HARTZE SOZIALA

Inkestatutako herritarren bostetik batek dio (%21,5) gaur egun kide dela herriko elkarte (gastronomiko, kultural, kiroleko, aisialdiko...) edo eragile (sindikatu, herri-mugimendu, alderdi...) batean. Beste %4,5ek adierazi du iraganean kide izan zela baina gaur egun jada ez dela eta gainerako %74,0k dio ez dela kide. Gizonezkoen artean eta 45 urtez azpiko herritarren artean ehuneko altuago batek adierazi du parte hartze soziala baduela (%25-30 artean).

Gaur egun elkarte edo eragileetan parte hartzen ez duten herritarrei galdetu zaie ea gustatuko litzaieken edo prest leudeken kide izateko. Multzo horren hamarretik batek (%10,5) baiezkoa erantzun du eta kasu honetan gehiago izan dira emakumezkoak eta 30 eta 64 urte bitartekoak. Gauzak horrela, gaur egun parte hartu ez baina horretarako gogoia dutenei, galdetu zaie ea zer den parte hartzea oztokatzen dion arrazoi nagusia. Gehiengoak denbora falta edota lan ordutegiek jartzen dizkien zailtasunak aipatu dituzte (%33,3 eta %19,0 hurrenez hurren). Eta bestelako arrazoiaren artean agertzen dira elkarteen inguruko informazio falta edota euskara ez jakiteak eragiten dion zailtasuna.

POLITIKAREKIKO INTERESA ETA MAIATZEKO UDAL HAUTESKUNDEETAKO JARRERA

Parte hartze sozialaz gain, politika instituzionalaren inguruko galdera batzuk egin zaizkie inkestatuei. Lehenik eta behin, orokorrean politikarekiko zenbateko interesa duten galdetuta, lezoarren hamarretik lauk dio (%41,2) interes handia edo ertaina duela. Aldiz, beste %58,8k interes gutxi edo batere ez aipatu du. Interes handiagoa dutela adierazi dutenak gizonezkoak eta 30-44 urte arteko herritarrak izan dira, eta interes apalena adierazi dutenak emakumezkoak eta bereziki 65 urtetik gorakoak.

Inkesta egin baino sei hilabete lehenago udal hauteskundeak izan zirenez (2023ko maiatzean), lezoarrei galdetu zaie ea bozkatzera joan ziren. Galdetegia erantzun dutenen %83,3k bozka eman zuen, nahiz eta 30 urtez azpikoetan %63,9ra jaisten den ehuneko hori. Bestetik, maiatzeko udal hauteskundearen ondoren Lezon zein alderdi edo koalizio politikok gobernatzen duen galdetuta, hamarretik zortzik baino gehiagok dio EH Bildu dagoela (%83,3). Gainerako %16,7k ez daki nor dagoen Lezoko Udal Gobernuan eta ehuneko hori bereziki altua da 18-29 urte bitarteko gazteen artean (%28,5). Periferiako auzoetan bizi diren herritarren artean ere ezjakintasun handiagoa antzematen da gai honetan.

Hirugarren atalarekin bukatzeko, inkestatuei galdetu zaie Udal Gobernu berriak sortzen dizkien sentimenduen edo sentsazioen inguruan. Mahai gainean 11 sentimendu ezberdin jarri zaizkie eta hauetako nahi adina aukeratu ahal izan dituzte. Orokorrean sentsazio positiboek indar handiagoa dute negatiboek baino herritarren artean, izan ere, gehien aukeratu diren bi sentimenduak positiboak izan dira; batetik, Udal Gobernu berriak baikortasuna edo optimismoa transmititzen die herritarren %30,3 eta, bestetik, ilusioa eragiten die %27,8ri. Hirugarren eta laugarren sailkatu dira sentimendu neutro bat eta negatibo da; indiferentzia (%22,3) eta ziurgabetasuna (%16,5). Eta bost eta seigarren lekuak berriro sentsazio positiboak; lasaitasuna (%15,2) eta sinpatia (%11,1). Beste muturrean, ezkortasuna, haserrea edo deskonfiantza sortzen die esan duten herritarren %7tik behera izan dira.


Aldagai ezberdinen arabera gurutzatzen badira sentimendu hauek, ikusiko da positibotasuna adierazi duten profilak izan direla emakumezkoak, 30-44 urte artekoak, 65 urtetik gorakoak, Kaxkoaren inguruan bizi direnak, euskara ondo menperatzen dutenak eta herriko eragile sozialetan aktiboki parte hartzen dutenak edo parte hartzeko prest daudenak. Aldiz, Lezoko Udal Gobernu berriak sentsazio negatiboagoa sortzen die 18-29 urteko herritarrei, Altamiran edo Gaintxurizketa inguruan bizi direnei, euskara menperatzen ez dutenei, herriko eragileetan parte hartu nahi ez dutenei. Azken multzo honetan bereziki indiferentzia eta ziurgabetasuna gailentzen dira.

3.3.1. LEZOKO HERRIKO BIZITZAN DUEN PARTE HARTZE SOZIALA

Lezoko elkarte (gastronomiko, kultural, kiroleko, aisialdiko...) edo eragile (sindikatu, herri-mugimendu, alderdi...) baten bateko kide zara?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Bai, gaur egun kide naiz	75	21,5
Lehen kide izan nintzen baina gaur egun jada ez naiz	16	4,5
Ez, ez naiz kide	258	74,0
Guztira	349	100,0


Iturria: Lezoko herritarren iritziak Udalaren eta bere proiektuen inguruan. Aztiker, 2023.



Talde edo eragile bateko kide izateko gogoia duzu edo prest zaude?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Bai	29	10,5
Ez	216	77,0
ED / EE	35	12,5
Guztira	280	100,0


Iturria: Lezoko herritarren iritziak Udalaren eta bere proiektuen inguruan. Aztiker, 2023.



Zerk zailtzen edo oztopatzen du kide izatea?


	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Denbora faltak	7	33,3
Lan ordutegiagatik	4	19,0
Euskara ez jakiteak	3	14,3
Informazio falta, ez dakit zein elkarte dauden	3	14,3
Diruagatik	1	4,8
Elkarteak itxiak direlako eta beti jende berdina dagoelako	1	4,8
Kirol elkarteez gain, bestelako elkarte falta dagoelako	1	4,8
Politika eta kultura ez dira nahastu behar	1	4,8
Guztira	21	100,0

Iturria: Lezoko herritarren iritziak Udalaren eta bere proiektuen inguruan. Aztiker, 2023.

**Lezoko elkarte edo eragileren baten jarduerak antolatzen laguntzen duzu?**


	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Bai, laguntzen dut	55	16,0
Behin edo behin laguntzen dut, momentu puntualetan	31	9,0
Ez, ez dut laguntzen	258	75,0
Guztira	344	100,0

Iturria: Lezoko herritarren iritziak Udalaren eta bere proiektuen inguruan. Aztiker, 2023.

**Inkestatuaren profila, Lezoko bizitza sozialeko parte hartzearen arabera**

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Lezoko eragile sozialetan parte hartzaile aktiboa	75	20,8
Gaur egun ez du parte hartzen, baina egin nahiko luke	29	8,1
Ez du parte hartzen eta ez du interesik	212	58,9
ED/EE	44	12,1
Guztira	360	100,0

Iturria: Lezoko herritarren iritziak Udalaren eta bere proiektuen inguruan. Aztiker, 2023.




3.3.2. POLITIKAREKIKO INTERESA ETA MAIATZEKO UDAL HAUTESKUNDEETAKO JARRERA

Zenbateko interesa duzu politikaren inguruan?

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Interes handia	49	13,9
Interes ertaina	96	27,3
Interes txikia	91	25,9
Batere interesik ez	116	32,9
Guztira	352	100,0


Iturria: Lezoko herritarren iritzia Udalaren eta bere proiektuen inguruan. Aztiker, 2023.



Duela 6 hilabete, maiatzaren 28an, Udal hauteskundeak izan ziren. Bozkatzera joan al zinen?

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Bai, bozkatu nuen	286	83,3
Ez, abstenitu egin nintzen	52	15,3
Beste (ez da oroitzen, ez zituen 18 urte, bozka eskubiderik ez...)	5	1,4
Guztira	343	100,0


Iturria: Lezoko herritarren iritzia Udalaren eta bere proiektuen inguruan. Aztiker, 2023.



Maiatzeko Udal hauteskundearen ondoren, Lezoren kasuan, zein alderdi edo koalizio politiko dago Udal Gobernuan hauteskunde horiez geroztik?

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
EH Bildu	297	83,3
EAJ - PNV	4	1,0
ED / EE	56	15,7
Guztira	356	100,0

Iturria: Lezoko herritarren iritzia Udalaren eta bere proiektuen inguruan. Aztiker, 2023.




Ondoko sentimenduen artean, zeintzuk azaltzen dute hobeto Udal Gobernu berriak sortzen dizkizun sentsazioak?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Baikortasuna / optimismoa	109	30,3
Ilusioa	100	27,8
Indiferentzia	80	22,3
Ziurgabetasuna	59	16,5
Lasaitasuna	55	15,2
Sinpatia	40	11,1
Desilusioa	32	8,8
Poza	28	7,8
Deskonfiantza	24	6,7
Haserrea	14	4,0
Ezkortasuna	12	3,2
Guztira	360	100,0

Oharra: Erantzun anitzeko galdera, aukera bat baino gehiago aukeratu zitekeen

Iturria: Lezoko herritarren iritziak Udalaren eta bere proiektuen inguruan. Aztiker, 2023.



3.4. UDAL GOBERNUA ETA BERE KUDEAKETAREN BALORAZIOA

UDAL GOBERNUAREN ETA OPOSIZIOAREN INGURUKO IRITZIA

Hauteskundeak pasa eta sei hilabetera, Udal Gobernuaren inguruko iritzia, oro har, positiboa da eta herritarren gehiengoak konfiantza ematen dio taldeari. %9,7k uste du "Lezoko arazoak konpontzen ari dela", eta beste %49,2k berriz "badakiela nola konpondu Lezoko arazoak, baina denbora gehiago behar duela". Bi aukerak batuta, ia hamar herritarretik seik iritzi positiboa du Udalarekiko. Inkestaturaz geroz eta gazteagoa izan, orduan eta kritikagoa edo eszeptikagoa da Udal Gobernuarekin. Izan ere, herritar gazteenak dira iritzi 'negatiboen' dutenak, %16,2k adierazi baitu "Udalak ez dakiela nola konpondu Lezoko arazoak" eta beste %10,3 uste du "Lezoko arazo nagusiak konpontzea udalaren eskumenetatik kanpo dagoela". Bizilekuari dagokionez, Gaintxurizketa eta landa eremuan bizi diren herritarrak dira kritikoenak.

Oposizioaren kasuan, aldiz, iritziak banatuago daude eta orokorrean nabari da oraindik legealdi hasiera dela. Oposizioak "Lezoko arazoak konpontzeko proposamenak egiten laguntzen duela" irizten dutenak (%11,2) eta "Udal Gobernuari kritika hutsa eta oztopoak jartzen dizkiola" uste dutenak (%11,5) oso parekatuta daude. Hala ere, galdera honetan talderik handiena ezer erantzuten ez dutenek edo oposizioak ez lagundu ez oztopatu egiten ez duela esaten dutenek osatzen dute, bien artean %77,3.

UDAL GOBERNUA HAINBAT GAJETAN NOLAKO KUDEAKETA EGITEN ARI DEN

Gai zehatz batzuen inguruan Udala egiten ari den kudeaketari erreparatuta, bereziki hiru eremutan egiten da balorazio positiboa; batetik, kultur eskaintzan herritarren ia hiru laurdenak (%73,1) oso ondo edo nahiko ondo egiten ari dela baloratzen dute. Bestetik, emakumeen eta gizonen berdintasunean ere herritarren bi herenaren (%68,7) balorazio positiboa jasotzen dute. Eta hirugarren lekuan, hizkuntzen kudeaketan ere inkestaturaz %66,4k balorazio positiboa egiten du. Koska bat beherago kokatzen dira Gizarte Zerbitzuen esparruan eta adineko herritarrentzako zerbitzuetan egiten den lana, herritarren %45 inguruk positiboki baloratuta eta %20 inguruk negatiboki. Esan beharra dago Gizarte Zerbitzuen eta adinekoen zerbitzuen inguruko ezjakintasuna handiagoa izan dela beste alorrena baino.

Sailkapenean datozen ondorengo lau gaiak, seigarren postutik bederatzigarrenera kokatzen direnak, aurrekoek baino kritikotasun handiagoa jaso dute herritarren aldetik. Inkestaturaz antzerako pisua duten bi bloketan banatzen dira, batean Udalaren kudeaketa oso ona edo nahiko ona izaten ari dela diotenak eta bestean nahiko edo oso txarra dela diotenak (%40-45 inguruko ehuneko bakoitzean). Ondorengo gaiak sartzen dira multzo honetan; ingurumena eta krisi klimatikoa, haur parkeen kudeaketa, kaleen eta azpiegituren kudeaketa eta norberaren auzoak Udaletik jasotzen duen arreta. Aspektu gehienetan orokorrean eta, bereziki, auzoak jasotzen duen arretaren kasuan, Altamira eta Gaintxurizketa inguruko herritarrek balorazio negatiboagoak egin dituzte.

Bukatzeko, kudeaketa aspektuetan azken postuan geratu da aparkalekuen gaia, herritarren gehiengoak (%71,4) esaten baitu Udala nahiko gaizki edo oso gaizki gestionatzen ari dela kontu hau. Bereziki kritiko agertzen dira gizonezkoak eta 30 urtez azpiko lezoarrak.

UDAL GOBERNUAREN EZAUGARRI BATZUEN BALORAZIOA

Udal Gobernuari zuzendutako atala amaitzeko, inkestatuei eskatu zaie Udal Gobernuaren baloratzeko hainbat ezaugarriren baitan: herritarren arazoekiko hurbiltasuna, kudeaketarako gaitasuna, zintzotasuna, akordioak lortzeko gaitasuna eta proposamen berritzaileak egiteko gaitasuna, 0 eta 10 bitarteko eskala batean.

Balorazio guztiak oso antzekoak izan dira; 6,0 eta 6,3ko puntuazioaren artekoak. Ondoen baloratzen diren aspektuak 'zintzotasuna' eta 'proposamen berritzaileak egiteko gaitasuna' dira, hurrenez hurren 6,3 eta 6,2ko batezbesteko puntuazioarekin. Eta ondoren datoz, balorazio altuenetik baxuenera ordenatuta, 'akordioak lortzeko gaitasuna', 'gestiorako gaitasuna' eta 'herritarren arazoekiko hurbiltasuna'. Orokorrean, erantzunetan antzematen da oraindik balorazioak egiteko goiz dela herritarren ustez. Hori ikusten da "ez dakit" erantzun dutenen ehuneko oso altua delako baloratzeko aspektu guztietan.

UDAL GOBERNU BERRIAK AURREKOAREKIN ALDERATUTA NOLA LAN EGINGO DUEN


Aurreko galderetan bezala, maiatzean lanean hasi den Udal Gobernuaren aurretik egon denarekin alderatzeko eskatuta, nahiko zaila egin zaie herritarrei erantzuteko. Nabaritzen da herritarren aldetik konfiantza maila bat badagoela gaur egungo Udal Gobernuan, gehienek uste baitute aurrekoek baino hobeto kudeatuko dituztela gauzak. Orokorrean, lezoarrak hiru bloke nagusitan banatzen dira galdera honetan, hirurak %30 inguru biltzen dutenak. Lehen multzoan daude Udal Gobernu honek gauzak hobeto egingo dituela pentsatzen dutenak (%30 inguru). Bigarren multzoan sartzen dira pentsatzen dutenak oraingoek aurrekoen kudeaketa berdina egingo dutenak, ez hobeto ez okerrago. Eta hirugarren multzoan daude oraingoz erantzunik ematen ez dutenak. Azkenik, multzo txiki batek uste du (%5 inguruk) EH Bilduren Udal Gobernuak okerrago egingo duela aurreko EAJrenak baino.

3.4.1. UDAL GOBERNUAREN ETA OPOSIZIOAREN INGURUKO IRITZIA

Ondoko esaldietatik zeinek azaltzen du hobeto Udal Gobernuari buruz duzun iritzia?

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Lezoko arazoak konpontzen ari da	35	9,7
Badaki nola konpondu Lezoko arazoak, baina denbora gehiago behar du	177	49,2
Ez daki nola konpondu Lezoko arazoak	60	16,7
Lezoko arazo nagusiak konpontzea udalaren eskumenetatik kanpo dago	15	4,3
ED / EE	73	20,2
Guztira	360	100,0


Iturria: Lezoko herritarren iritzia Udalaren eta bere proiektuen inguruan. Aztiker, 2023.



Eta ondoko esaldietatik zeinek azaltzen du hobeto oposizioari buruz duzun iritzia?

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Lezoko arazoak konpontzeko proposamenak egiten laguntzen du	40	11,2
Udal Gobernuari kritika hutsa eta oztopoak jarri besterik ez du egiten	41	11,5
Ez bat ez beste	155	43,1
ED / EE	123	34,1
Guztira	360	100,0

Iturria: Lezoko herritarren iritzia Udalaren eta bere proiektuen inguruan. Aztiker, 2023.




3.4.2. UDAL GOBERNUA HAINBAT GAIETAN NOLAKO KUDEAKETA EGITEN ARI DEN

Honako gaietan, Udala nolako kudeaketa egiten ari dela esango zenuke?

	Oso ona	Nahiko ona	Nahiko txarra	Oso txarra	Ez dakit	Indizea (100 / -100)
Kultura eskaintza	14,6	58,5	9,2	2,4	15,4	36,9
Emakumeen eta gizonen berdintasuna	10,8	57,9	7,2	1,3	22,7	34,9
Hizkuntzen kudeaketa	8,5	57,9	12,1	2,7	18,8	28,7
Gizarte zerbitzuen esparruan	4,7	43,8	13,0	4,3	34,1	15,8
Adinekoentzako zerbitzuak	2,3	42,5	18,8	4,9	31,6	9,3
Ingurumena: krisi klimatikoa	2,3	35,8	27,6	5,7	28,7	0,7
Haur parkeen kudeaketa	5,1	35,1	26,2	9,0	24,6	0,6
Kaleen eta azpiegituren egoera	0,3	46,0	37,4	9,4	7,0	-4,8
Zure auzoak udaletik jasotzen duen arreta	1,9	42,0	27,8	15,9	12,3	-6,9
Aparkalekuak	0,3	16,0	44,4	27,0	12,3	-41,0

Iturria: Lezoko herritarren iritziak Udalaren eta bere proiektuen inguruan. Aztiker, 2023.




3.4.3. UDAL GOBERNUAREN EZAUGARRI BATZUEN BALORAZIOA

Udalak orain arte egin duenagatik, 2023ko maiatzetik hona, nola baloratzen duzu, 0tik 10era, ondoko aspektuetan. Kontuan hartuta 0ak esan nahi duela ezaugarri hori ez daukala batere eta 10ak guztiz daukala

	Balorazio ona (10-7)	Erdipurdiko balorazioa (6-4)	Balorazio txarra (3-0)	ED / EE	Batezbestekoa (10-0)
